

Internet / Telefonoak

Internet helbidea

<http://zm.gipuzkoakultura.net>

Mail

mzumalakarregi@gipuzkoa.net

Telefonoa

+34 943 88 99 00

Fax

+34 943 88 01 38

Konpromisoak betetzea / Herritarren eskubideak

Konpromisoak betetzea

Zerbitzuen karta honetako konpromisoak zenbateraino betetzen diren ezagutzeko, kontsultatu urteko emaitzak honako web orrietan: www.gipuzkoa.net/DFG

Herritarren eskubideak

Herritarrek Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko harremanetan dituzten eskubideak apirilaren 26ko 26/2005 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren herritarrentzako laguntza eta arreta zerbitzuak arautzekoak (GAO 101 zk., 2005eko maiatzaren 31koa) 4. artikuluan zehazten ditu.

Kexak eta iradokizunak

Gipuzkoako Foru Aldundiak kexak eta iradokizunak aurkezteko sistema bat ezarri du, eskaintako zerbitzuei buruz zure iritzia emateko aukera izan dezazun.

Kexak eta iradokizunak Aldundiaren edozein erregistroan aurkez daitezke, postaz edo internet bidez.

Gipuzkoako Foru Aldundiak 30 laneguneko epea du erreklamazioei erantzuteko.

Zerbitzuak zure laguntzaz hobetu nahi ditugunez, eskertuko genizuke asebetetze mailari buruz aurkezten zaizkizun inkestak beteko bazenituz.

Z·M

MUSEO - ZUMALAKARREGI - MUSEO



Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa

Zerbitzuen Karta

^{museoa} Zumalakarregi

XIX. mendeko Euskal Herria ezagutu eta gozatzeko Erreferentzi Zentroa



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kultura Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Cultura

Gero eta
hurbilago

Ordutegia / Helbideak

Bisita orduak

Astearte-ostiralak:
10:00 – 13:00 / 15:00 – 19:00
Larunbata eta igandeak:
11:00 – 14:00 / 16:00 – 19:00
Astelehenetan itxita

Posta helbidea

Muxika egurastokia, 6
Museo-Zumalakarregi-Museoa
20216 Ormaiztegi (Gipuzkoa)

Garraiobideak




Busa

Donostia - Oñati
Tolosa - Bilbo
Iruña - Eibar



Trena

Madril - Irun bidea



Zerbitzu karta honen ardura duen atalaren izena eta helbidea

Ondare Historiko-Artistikoaren, Artxiboen eta Museoen Zerbitzuak dauka karta honen ardura, Zerbitzu Publikoen Kalitate Zuzendaritza Nagusiaren lankidetzarekin.

Kontaktua

www.gipuzkoakultura2.net



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kultura Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Cultura



MUSEO - ZUMALAKARREGI - MUSEO



Zerbitzu Publikoen Kalitate Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Calidad en los Servicios Públicos

Museo-Zumalakarregi-Museoa

Muxika egurastokia 6
20216 Ormaiztegi (Gipuzkoa)

T. +34 943 88 99 00
F. +34 943 88 01 38

<http://zm.gipuzkoakultura.net>
mzumalakarregi@gipuzkoa.net

2007ko ekainan argitaratua

Sarrera

Gipuzkoako Foru Aldundiak hobekuntza administratiboa du lehentasunetarikoa, bai administrazio arin, eraginkor eta eragilea lortzeko eta bai administrazio gardena eta lankidezalea bermatzeko, betiere Gipuzkoak dituen beharretara eta bertako gizartearen zerbitzura jarria.

Asmo horrekin zerbitzuen kartak aurkezten dira. Zerbitzuen kartak tresna baliagarriak dira eskatu daitezkeen prestazioak herritarrek errazago ezagutzeko eta Aldundiko arlo bakoitzak bere zerbitzuen kalitatea hobetearren hartu dituen konpromisoen berri emateko.

Modu horretan, eta zure laguntzaz baliatuta, areago hobetu nahi dugu foru zerbitzu publikoak erabiltzen dituztenen asebetetze maila.

Joxe Joan Gonzalez de Txabarri
Gipuzkoako diputatu nagusia

Xedea

Zumalakarregi Museoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren zerbitzu publikoa da, eta oro har jendeari eta bereziki adituei Euskal Herriko XIX. mendea gerturatzea du helburu, garai horrek gizarte, kultura, ekonomia eta politikari lotutako aldaketa handiak izan baitzituen eta, gainera, hasiera eman zion mundu garaikideari.

Horretarako, edukiak eta bildumak gorde, ikertu eta handitzeaz gain, bidai dinamiko bat proposatzen du egungo gizarte ezagutu eta ulertzeko funtsezko den garai horretan zehar, arautu gabeko hezkuntza baliabideak bultzatuz.

Zein zerbitzu eskaintzen ditugu?

Dokumentazio eta ikerketa zerbitzua

- XIX. mendeko informazio eta dokumentazio berezia
- Argitalpenak
- Ikertzaileak artatzea
- Informazio dokumentalerako eskaerak
- Irudiak digitalizatzea
- Agiriak erreproduzitzea
- Kontsulta bereziak

Aldi baterako erakusketak

- Bisita gidatuak
- Argitalpenak
- Web orria
- Audio-gida

Heziketa zerbitzua

- Bisita gidatuak
- Gaiaren arabera ibilbideak
- Jolas eta heziketarako gunea
- Parte hartze bereziko tailerrak
- Girotzeko jolasak

Web zerbitzua

- Dokumentazio zentroa
- Eskaerak artatzea
- Kultur orriak:
 - "XIX. mendeko bilduma"
 - XIX. mendeko historia militarra Euskal Herrian
- Erakusketa birtualak
- Bildumagarri birtualak
- Heziketa-eskaintza
- Jolas birtualak

Hedapen eta sustapen zerbitzua

Elkarlana bestelako erakunde eta eragilerekin

Jendea artatzea

Zein dira gure konpromisoak?

Dokumentazio eta ikerketa zerbitzua

Kontsulta eta eskaeren % 80, astebeteko epean erantzutea.

- Emandako epean erantzundako kontsulten ehunekoa.

Liburu eta dokumentu funtsen katalogoa hileroko eguneratzea.

- Katalogoa eguneratu den hilabete kopurua.

Aldi baterako erakusketak

Aldi baterako erakusketa urtero antolatzea, beste erakunderekin elkarlanean.

- Egin diren erakusketen kopurua.

Heziketa zerbitzua

Bisita gidatua (gaia, dinamika, parte hartzea, iraupena) ikasle-taldeentzat (udako tailerra, gabonetako tailerra, bisitarien parte hartzea bultzatuz.

- Erabiltzaileen balioespena, 7tik gora.

"Pieza historiko" baten erakusketa ibiltaria egitea Gipuzkoako talde ezberdinetan, urtean lau aldiz.

- Erabiltzaileen balioespena, 7tik gora.
- Erakusketa ibiltariaren zenbatekoa.

Urtean 3 tailer elkarreragile eta animazio jolasak egitea ikasle eta aisialdi taldeentzat (udako tailerra, gabonetako tailerra eta udaberriko ginkana).

- Egindako tailerren/jolasen zenbatekoa.
- Erabiltzaileen balioespena gauzatu diren jardueretan, 7tik gora.

Web zerbitzua

Web orriaren edukiak hileroko eguneratzea, euskaraz, gazteleraz eta ingelesez.

- Zenbat hilabetetan eguneratu den.
- Erabiltzaileen balioespena, 7tik gora.

Erakusketa birtual bat egitea urtero, bildumagarri digitalaren hileroko faszikuluak argitaratzeaz gain.

- Urtero egin diren erakusketa birtualen zenbatekoa.
- Zenbat hilabetetan argitaratu den bildumagarri digitala aurreikusitako datan.

Hedapen eta sustapen zerbitzua

Gutxienez 25 bisita egitea urtean, museoa talde desberdinen artean ezagutzera emateko.

- Egindako bisiten zenbatekoa.

"Zerbitzu eta jarduera didaktikoen" katalogoa urtero berrargitaratzea.

- Argitaratutako katalogo kopurua.

Elkarlana bestelako erakunde eta eragilerekin

Kultur eta turismoko 5 ekintza gauzatzea urtean, inguruko eragileekin elkarlanean.

- Inguruko eragileekin egindako ekintza kopurua.

3 ekintza gauzatzea urtero beste museo, zientzia-erakunde, unibertsitate eta adituekin elkarlanean.

- Beste museo, zientzia-erakunde, unibertsitate eta adituekin elkarlanean egindako ekintza kopurua.

Jendea artatzea

Adeitasunez artatzea.

- Erabiltzaileen balioespena, 7tik gora.

Bisitentzako leku egoki eta erosoak izatea.

- Erabiltzaileen balioespena, 7tik gora.